

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4696

IRAGARKIA, 2023ko irailaren 27koa, Industria Administrazioaren Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita proiektu hau: 13,2 kV-eko «Beurko-Ugarte cto. 2» zirkuitu sinpleko erdi-tentsioko aireko linea elektrikoaren zuhaitzik gabeko zerrendaren handitzea, zeina Beurko (4553) TAB eta 9049 zenbakidun euskarriaren artean gauzatuko den. Proiektua Valle de Trápaga-Trapagaran eta Barakaldoko (Bizkaia) udal-mugarteetan kokatzen da.

Jendaurrean jartzen da erreferentziako instalazio elektrikoari buruzko informazioa, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan xedatutako ondorioetarako (2020-03-31ko EHAA) –dekretu horren bidez arautzen dira instalazio hauen administrazio-baimenerako prozedurak: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak–, eta hauetan xedatutakoarekin bat etorritz: Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikulua (2013-12-26ko BOE); eta Goi-tentsioko lineei buruzko Arautegia eta haren jarraibide tekniko osagarriak (01etik 09ra bitarteko JTO-LAT) –otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretuak onartutakoak (2008-03-19ko BOE)–. Izan ere, instalazio horretarako eskatu dituzte aurretiko administrazio-baimena, eraikitze baimena eta onura publikoaren deklarazioa.

Erreferentzia: JCI/YMM.

Espedientea: 48-AT-Y-2023-00044

– Eskatzailea: i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU.

– Kokapena: Valle de Trápaga – Trapagaran eta Barakaldoko udal-mugarteak.

– Aurrekontua, guztira: 3.268 euro.

– Helburua: zuhaitzik gabeko eremu bat izatea linea igarotzeko, lehendik dagoena baino handiagoa, arauzko agindu berriei jarraikiz, gaur egungo 13,2 kV-eko «Beurko-Ugarte cto. 2» aireko linea elektrikoan, Beurko (4553) TAB eta 9049 zenbakidun euskarriaren artean eta bere adarretan.

– Instalazioaren ezaugarriak: Larraitz Rique Garaizar elektrizitate-ingeniariak 2022ko urrian sinatutako proiektuan adierazitakoak, espedientean daudenak.

Proiektua gauzatzeko aurretiko administrazio-baimena, eraikitze baimena, eta onura publikoaren deklarazioa eskatzen dira.

Argitara ematen da hori guztia jendeak horren berri izan dezan, bereziki lursailen jabeek eta jarduketak ukitutako gainerako titularrek. Interesdunen zerrenda iragarki honen amaieran sartu da, berriaz aztertu ahal izan dezaten proiektua, sail honen Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua, Bilbao), dagokion udaletxean edo honako URL honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Ordezkaritza honetan egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira idatzizko euskarri fisikoan (bi kopia) edo EAEko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoko orokorraren bidez (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>) edo Administrazio

2023ko urriaren 16a, astelehena

Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutako moduan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik 20 egun balioduneko epean.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidezko harremana izatera, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, aipatutakoek jendaurrean jartzeko izapide honetan egindako alegazioak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira.

Bilbao, 2023ko irailaren 27a.

Industria Administrazioaren Bizkaiko lurralde-ordezkarria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

2023ko urriaren 16a, astelehena

ERANSKINA

13.2 KV-EKO «BEURKO-UGARTE CTO. 2» ZIRKUITU SINPLEKO ERDI-TENTSIOKO AIREKO LINEA ELEKTRIKOAREN ZUHAITZIK GABEKO ZERRENDAREN HANDITZEA, ZEINA BEURKO (4553) TAB ETA 9049 ZENBAKIDUN EUSKARRIAREN ARTEAN GAUZATUKO DEN

48-AT-Y-2023-00044 ESPEDIENTEA

ERAGINPEKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

Udalerria	Finka	Titularra	Katastroko datuak			Afekzioa						
			Poligonoa	Lurzatia	Izaera/Laborantza	Euskarri-zenbakia	Linearen luzera (m)	Eroaleen zabalera (m)	Eguno Bide-zorren azalera (m ²)	Handizearen zortasunaren azalera (m ²)	Erabilera aidaketagatik eraginpeko azalera (m ²)	Zuhaizten azalera (m ²) eta mota
Valle de Trápaga - Trapagaran	2.04	Beobide Arteaga Juan	004	245	Landa / Mendi Abartsua	-	7	3,6/3,6	62	165	390	165 m ² - 15-30 urte bitarteko artadiak
Valle de Trápaga - Trapagaran	2.06	Uriguren Barandiaran Carmen	004	012	Landa / Mendi Abartsua	5202	41	2,4/2,4	250	360	418	360 m ² - 15-30 urte bitarteko artadiak; 10-20 urte bitarteko haritzak, artadiak eta hurritzak
Valle de Trápaga - Trapagaran	2.07	Garmendiz Gamboa Pedro	004	011	Landa / Larrea	-	23	2,4/2,4	137	169	-	169 m ² - 10-20 urte bitarteko haritzak, artadiak eta hurritzak
Valle de Trápaga - Trapagaran	2.09	Bordegaray Arregui Ignacio	005	066	Landa / Larrea	-	6	2,4/2,4	38	87	-	87 m ² - >50 urteko artadia
Valle de Trápaga - Trapagaran	2.13	Bizkaiko Foru Aldundia - Ogasun Eta Finantza Saila - Ondare Zerbitzua	004	271	Landa / Larrea	9038	28	3,6/2,4 - 2,4/2,4	153	76	-	76 m ² - 20 urteko haritzak

2023ko urriaren 16a, astelehena

Udalerria	Finka	Titularra	Katastroko datuak			Afezioa						
			Poligonoa	Lurzatia	Izaera/Laborantza	Euskarri-zenbakia	Linearen luzera (m)	Eroaleen zabalera (m)	Eguno Bide-zorren azalera (m ²)	Handitzearen zortasunaren azalera (m ²)	Erabilera aidaketagatik eraginpeko azalera (m ²)	Zuhaitzen azalera (m ²) eta mola
Valle de Trápaga - Trapagaran	2.14	Ahedo Vd Balparda Julio	004	071	Landa / Mendi Abartsua, Laborantza	9039	76	3,6/2,4 - 2,4/2,4	484	72	455	72 m ² - 20 urteko haritzak
Valle de Trápaga - Trapagaran	2.23	Zugasti Hornos Hr	004	138	Landa / Larrea, Mendi Abartsua	9048	55	2,4/2,4	328	94	146	94 m ² - 50 urteko haritzak, 50 urteko lizarra
Valle de Trápaga - Trapagaran	2.26	Zugasti Hornos Hr	032-67	010	Hirikoa	4601	50	2,4/2,4 - 2,4/3,6	292	245	-	245 m ² - 50 urteko haritzak, 30 urteko sasiakaziak, 5-10 urte bitarteko lizarrak